

KUKAI, **ESPAINIAKO DANTZA** **SARI NAZIONALA!**

Kukai Dantza Taldea



Joan den iraileko azken
 asteburuko agenda zeharo
 beteta zegoen Kukai Dantza
 Konpainiarentzat.

Ostegunean Oskara ikuskizuna Madrilen egin berritan Erreteriarra itzultzen ari ziren ostiral goizean, turismo gala batean parte hartzeko, hurrengo egunean Tuteran berriro Oskara eskaini eta igandean Getxofolk jaialdian Carlos Nuñez, Iñaki Salvador eta hainbat artistekin batera ikuskizun berezi bat emateko. Ostiral arratsaldeko ordu batzuk besterik ez zituen Kukaik libre, dantzariak atsedean hartu eta euren etxeetan egoteko.

Baina eguna hankaz gora jarri zen. 14:00ak ziren Jon Maya konpainiako zuzendariaren telefonoak (sarritan bezala) deigar egin zuenean. Maya hitzik gabe geratu zen, gutxitan bezala ez atzera eta ez aurrera, hunkituta. Deia Espainiako Kultura Ministeriotik heldu zen: “Bildu berri gara eta Kukai aurtengo Espainiako Dantza Sari Nazional izatea erabaki dugu, Sorkuntza atalean”.

Antonio Gades, Lucia Lacarra, Nacho Duato, Israel Galvan, Cesc Gelabert eta abarren gisan... Kukai Dantza Espainiako Dantza Sari Nazionala zen une horretan. Epaimahaiak horrela erabaki zuten. “Tradiziozko dantza batetik lengoia garaikide bat sortzeagatik eta mitoetan eta tradizioetan oinarritutako ikerketa eta sorkuntza lana zein interpretazio bikain eta kalitatezkoagatik”.

Albistea 15:00etan publiko egitekoa zen. Jon Mayak kideei albistea eman nahi zien, baina aztoratuta zegoen. Sakeleko telefonoaren bidez audio mezu bat helarazi zien furgonetan bidaian heldu ziren dantzari kideei. Bulegoko lankideekin telefonoz hitz egin zuen, baina hitz gutxi. Emozioak asko. Gero familia, lagunak... Eta komunikabide eta profesionalen deiak hasi ziren. Zoramena.

Hurrengo egunetan Jon Mayak komunikabideetan zioen: “Agian ez da izan MAX sariak bezain mediatikoa izan. Bat-batean dator albistea, ez dago iragarrita eta publiko zabalari oharkabean igaro ahal zaio horregatik denagatik, baina errekonozimendu hau izugarria da. Konpainiaren ibilbide osoari, lan egiteko moduari, orainari... denari egiten dio errekonozimendua. Palmaresa ikustea besterik ez dago sariaren neurria ikusteko. Irakurtzeak soilik zorabioa sortzen dit”.

Taldeak guztiak Errenteriarantz itzuli ziren azkenean. Xabier Olaskoaga Plazan batu



Antonio Gades, Lucia Lacarra, Nacho Duato, Israel Galvan, Cesc Gelabert eta abarren gisan... Kukai Dantza Espainiako Dantza Sari Nazionala zen une horretan. Epaimahaiak horrela erabaki zuten.